

JUAN JOSE IBARRETXE ETA JUAN CRUZ ALLI BRUSELAN EGON ZIREN ATZO GAIAZ HITZ EGITEKO

Hegoaldeko zerga politika EBko legedira egokitzea aztertuko dute

Komunitate autonomo batzuk kexu dira Hego Euskal Herrian indarrean dauden neurri fiskalengatik. Europako Batzordeak EAEko eta Nafarroako zerga ereduen ezaugarriak aztertuko ditu, bereziki Elkarleen gaineko Zerga eta opor fiskalak arautzen duen legea.

Efe / Brusela

EUSKO JAURLARITZAKO eta Nafarroako Gobernuak ordezkariek Europako Batzordearekin kontsulta itzulita hasi zuten atzo, Hego Euskal Herriko zerga ereduak Europako legedira nola egokitu aztertzeko. Eusko Jaurlaritzaren izenean Juan Jose Ibarretxe lehendakaria izan zen Belgikan eta Nafarroako Gobernuarenean, aldiz, Juan Cruz Alli, lehendakariordea eta Ekonomia sailburua.

Ibarretxe eta Alli Karel Van Miert komisarioarekin bildu ziren. «Oso harrera ona egin digute. Gure sistema fiskalarekiko interes handia azaldu du Van Miert komisarioak», adierazi zuten Allik eta Ibarretxek bilera ostean egin zuten prentsurrekoan.

«Elkarlanerako proposamen zintzoa egin diogu. Dena den, ikertzen eta proposamenak aztertzen hasi baino lehen, zein metodologia erabiliko dugun hitzartu behar dugu», azpimarratu zuen Ibarretxe lehendakariordeak.

Alli lehendakariordea ere ildo beretik mintzatu zen bileraren emaitzak baloratzean. Nafarroako Gobernuak Europako Batzordearekin lan egiteko prest dagoela eta araudiak bateratu behar direla esan zion Allik Van Miert komisarioari.

Elkarleen gaineko Zerga • Elkarleen gaineko Zergaren inguruan Hegoaldeko gobernuek dituzten asmoei buruz galdegin zuten Europako Batzordeko ordezkariek Alli eta Ibarretxeri. «Li-



Juan Jose Ibarretxe (ezkerrekoa) eta Juan Cruz Alli (eskuinekoa) Hego Euskal Herriko araudi fiskalaren berri eman zioten Bruselako Zerga komisarioari.

ARTXIBOKOA

buru Zuriak egiten dituen aholkuak aintzat hartu nahi ditugu Elkarleen gaineko Zerga aldatzea erabakitzen badugu. Bereziki, lehiakortasunaren hazkundeari eta enpleguari buruz egiten dituen gomendioak hartuko ditugu kontuan», argitu zuen Juan Cruz Allik. Zerga aldatzekotan, Europako Batasunak agin-

tzen duenaren ildotik egingo dutela esan zuen Allik, eta «asmo hauek bideratzeko Batzordearekin elkarlanean tresnak abian jarri behar dituztela gaineratu zuen.

Opor fiskalak ere komisarioaren jakinmina piztu zuen, batez ere komisarioak jakin bazekielako beste komunitate autono-

miko batzuetan honek kritikak piztu dituela. Ibarretxek zera esan zion Van Miert komisarioari: «Ez dugu zertan Espainiako araudiaren jarraitzaile izan, autonomoak baikagara. Euskadiko industria BPGren (Barne Produktu Gordina) % 43 da eta gu Iparraldera begira gaude Hegoaldera baino gehiago». X

EAEko kanpo saldoaren superabita % 43 jaitsi zen iaz

Komunitateek Icxen gestioa hobetuko dutela pentsatzen dute Komertzioko arduradun nagusiek

Erredakzioa / Bilbo

EAEKO kanpo merkataritzako saldoak 73.259 milioi pezetako superabita izan zuen iaz, aurreko ekitaldian baino % 43 gutxiago, Madrilgo Gobernuaren Ordezkaritzak atzo jakinarazi zuenez.

Esportazioak 961.707 milioi pezetara iritsi ziren, urtetik urtera % 11,1 gehitu ostean, eta esportazioak 1.035 bilioi pezetakoak izan ziren, % 19,9 hazita. Estaldura tasa % 107,6koa izan zen, beraz, aurreko ekitaldian % 116koa izan ondoren.

Kanpo merkataritzako saldoaren jaitsiera hau logikoa dela dio Gobernuak. Izan ere, 1994a oso urte ona izan zen esportazioetarako, pezetaren debaluzazioa de-

la-eta. Horregatik maila horri eustea zaila zen. Iaz, berriz, inbertsioa zuzpertz egin zen, eta horrek ekipamendu ondasunen inportazioak gehitzea ekarri zuen.

Herrialdez herrialde egoera oso ezberdina da. Araba eta Gipuzkoa oso esportatzaileak dira, eta Bizkaiak, berriz, esportazio baino inportazio gehiago izan du. Hala, Arabak 76.146 milioiko superabita eduki zuen iaz, Gipuzkoak 82.047 milioikoa eta Bizkaiak 84.936 milioiko defizita.

Ezberdintasun hauen arrazoia gehien esportatzen duten enpresak Araban eta Gipuzkoan kokatuta egotea da, hala nola Mercedes (Arabian), Michelin (Arabian) eta MCC (Gipuz-

koan). Bizkaietan, aldiz, Petronoren energia inportazioek saldoa desorekatzen dute.

EAEren bezero nagusia Frantzia da, esportazioen % 20 eta inportazioen % 17 lurralde honekin egiten dituelako. Hurrengo bezero nagusiak Alemania, Italia, Britainia Handia eta EEBBak dira. Hauekin guztiekin superabita izan zuen EAEren saldo komertzialak, Britainia Handiarekin izan ezik.

Komunitateek Icxen gestioa hobetuko dute • Bestalde, komunitate autonomoek hemendik aurrera parte hartu ahal izango dute kanpo merkataritzarako Estatuaren politikan, Icxen (Kanpo Merkataritzarako Era-

kundearen) gestioan komunitateak ordezkatuta egoteko akordioaren ondorioz.

Akordio horren berri eman zuten atzo Apolonio Ruiz Ligerok Estatuko Kanpo Merkataritzarako idazkariak eta Rosa Diez Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo sailburuak.

Madrilgo eta Gasteizko Komertzio arduradunek enpresari talde bati Bilbon adierazi ziotenez, komunitateek erakunde honen gestioa hobetu egingo dute, batez ere oso esportatzaileak diren komunitateen kasuan, hala nola Hego Euskal Herrikoak. Horrela, erakunde honek sakondu egingo du enpresen internazionalizazioa laguntzeko duen eginkizuna. X

Nafarroako Volkswagenek ez dute erabateko akordiorik lortu oraindik

TWRko langileek greba iragarri dute etziraiko

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Volkswageneko langileen ordezkariek enpresako zuzendaritzarekin bildu ziren atzo, lan hitzarmenaren negoziaketan aurrera egiteko asmoz. Bileran nolabaiteko hurbilketa egon zen bi aldeetan artean, ez ordea erabateko akordiorik. Langileak etzi elkartuko dira berriro zuzendaritzaren azken eskaintza aztertzeko.

Zuzendaritzak argi utzi zien bi urteko lan hitzarmena baik ez duela onartuko. Soldatari dagokionez, 1996. urterako KPI gehi % 0,5eko igoera eta iraileko paga osoa eskaini zien. Datorren urterako, berriz, % 4ko igoera eta 10.000 pezetako ordainketa estra bat proposatu zien.

Behin-behineko langileak 36 hilabeteko kontratua bete ondoren behin-betiko bihurtzeko eskaerari negoziagarria iritzi zion zuzendaritzak.

Egunero hamar minutuko beste atsedenaldi bat izateko eskaera, berriz, atzera bota zuen. Zuzendaritzak nahiago du urtean lanegun bat gutxiago izatea atsedenaldiak ugaritzea baino.

Azken orduko negoziaketak

TWRn • TWR (garai batean Torfinasa) lantegiko zuzendaritza eta langile batzordeko ordezkariek ere lan hitzarmenaren gainean negoziatzeko bildu ziren atzo. Informazio hau idazteko orduan bilduta ziren artean.

Lan hitzarmenari buruzko akordiorik ezean, TWRko 630 langileek hilabeteko greba iragarri zuten. Greba etzi hastekoak dira langileak. Lan hitzarmenaren negoziaketari urtarrean ekin zioten, baina otsailaren 9az geroztik ez da aurrerapausorik egon.

Hori dela eta, langileek akordioaren bat lortzeko azken deia egin zuten zuzendaritzari, bestela astelehenean greba hasiko zutela esanez. Antza denez, zuzendaritzak serioski hartu zuen ultimatum.

ELA sindikatuak bederatzi ordezkarri ditu langile batzordean, CCOOK lau, UGTk hiru, eta ESK-CUISek eta LABek bana. Langile batzordeak atzera bota zuen zuzendaritzaren lehen eskaintza, onartezina zelakoan. Zuzendaritzak beste proposamen bat egin zien orduan. Soldatari dagokionez, kasu, KPI gehi % 1,5eko igoera eskaini zien 1996 eta 1997 urteetarako. Sindikatuak eskaintza hau onartzeko prest agertu ziren, beti ere modu linealean aplikatuz gero. Zuzendaritza, berriz, ez da soldata igoera linealean aldeko. X